



EUSKADIKO  
ORKESTRA

2010-2011

Euskadiko Orkestra Sinfonikoa  
Orquesta Sinfónica de Euskadi



Bilbao Donostia-San Sebastián Vitoria-Gasteiz Pamplona-Iruña — otsailak 17-18 febrero — 20:00 h. — Conciertos nº 2447-2448



## Gaurko kontzertua

### El concierto de hoy

**DANTZAREN APOTEOSIA.** 1877an *Zisneen lakua* estrenatu izana Txaikovskik unibertsoko coreográficoari egindako lehen ekarpena da. Egileak gaitasun berezia erakutsi zuen esparru labain horretan, eta hurrengo urteetan bi maisulan egin zituen: *Loti ederra eta Intxaurrauskailua*. San Petersburgoko Antzoki Imperialeko balletoko maisu Marius Petipa-ri idatzitako partitura horietan —oparo orkestratutako miniatura-mosaikoa—, Txaikovskik genero berritzeko ekarpena egin zuen, ordura arte inoiz ikusi ez zen aurrerapen dramatikoaren, timbre-aberastasunaren eta erritmo-oparotasunaren bitartez. Ballet horietako suite-etatik Thierry Malandain-en “Magifique. Tchaikovsky Suites” ikuskizuna sortu zen. Zulogunetik, orain arte Abonu-Denboraldian lehenengo aldiz, Orkestrak handitasuna emango dio obra honi, baita zuzeneko musikak magia sortzeko duen gaitasuna ere.

**APOTEOSIS DE LA DANZA.** El estreno en 1877 de *El lago de los cisnes* constituye la primera aportación de Tchaikovsky al universo coreográfico, terreno comprometido en el que muestra una especial idoneidad y al que suministra en años posteriores dos obras maestras: *La bella durmiente* y *Cascanueces*. En estas partituras -mosaico de miniaturas suntuosamente orquestadas- escritas para Marius Petipa, maestro de ballet en el Teatro Imperial de San Petersburgo, Tchaikovsky contribuye a la renovación del género mediante una progresión dramática, riqueza tímbrica y variedad rítmica sin precedentes. De las suites de estos ballets nace el espectáculo “Magifique. Tchaikovsky Suites”, de Thierry Malandain. Desde el foso, en un ejercicio sin precedentes en su Temporada de Abono, la Orquesta aportará a esta creación la magnificencia, pero también la “magificencia”, el poder de provocar magia, de la música en vivo.

Hemen jarrai ahal izango  
diguzu / Síguenos en:

[facebook](#) [flickr](#) [YouTube](#)

Y suscríbete al nuevo Euskor digital en

[www.euskadikoorkestra.es](http://www.euskadikoorkestra.es)

webgunean izena eman  
Euskor digital berrian

Testuak / Textos:  
Juan Manuel Viana



Euskadiko Orkestra Sinfonikoa  
Andrés Orozco-Estrada, zuzendari titularra

## Egitaraua / Programa

### Magifique. Tchaikovsky Suites

Piotr Ilich Tchaikovsky (1840-1893)

Tchaikovsky Suites [72']\*

Nicols Suites\* (N. Duperior-en konposizio osagarria/composición adicional de N. Duperior)

La bella durmiente. Suite, opus 66a, TH 234.

Sarrera/Introducción

Adagio

Pas de caractère

Panorama/Panorama

Balsa/Vals

Nicols Suites\* (N. Duperior-en konposizio osagarria/composición adicional de N. Duperior)

El lago de los cisnes. Suite, opus 20a. Zatiak / fragmentos:

Eszena/Escena

Balsa/Vals

Zisneen dantza/Danza de los cisnes

Eszena/Escena

Hungariar dantza/Danza húngara

Mazurka/Mazurca

Nicols Suites\* (N. Duperior-en konposizio osagarria/composición adicional de N. Duperior)

Cascanueces. Suite nº1, opus 71a, TH 35. Zatiak / Fragmentos:

Minttuara obertura/ Obertura miniatura

Martxa/Marcha

Azukrearen Maitagarriaren Dantza/Danza del Hada de Azúcar

Txinatar dantza/Danza china

Loreen balsa/Vals de las flores

Cascanueces. Suite nº2, opus 71b. Fragmentos:

Nº14. Pas de Deux, Printzea eta Azukrearen Maitagarria / El Príncipe y el Hada de Azúcar

Raphael Christ  
kontzertinoa / concertino

Eduardo Portal  
zuzendaria / director

Euskadiko Orkestra  
Orquesta de Euskadi

Malandain Ballet  
Biarritz

Thierry Malandain  
zuzendaria eta koreografoa/director y coreógrafo

Babeslea  
Patrocina:



kutxa



# Egitarauari Oharrak

## Notas al Programa

### Magifique Tchaikovsky Suites

**Piotr Ilich Tchaikovsky** - Votkinsk, 7 de mayo de 1840- San Petersburgo, 6 de noviembre de 1893

Haurren unibertssoak eta literaturan hobekien hura hezurmamitzen duten maitagarrien ipuinak biziki zirikatu zuten Tchaikovskyren irudimena, batez ere bere musika-sorkuntzaren arlo batean: koreografia. Bertan, musikari errusiarrak bere doinu-isuri oparoa eman zuen beste genero batzuetako egitura zurrun formaletan murriztuta geratu beharrik gabe. Hirulan besterik ez zituela, Tchaikovskyk baletaren historiari egindako ekarprena erabakigarria izan zen generoa berritzen laguntzeko; izan ere, ordu arte koreografoaren exijentziak nagusi-tzen ziren musikagilearenaren gainetik eta, ondorioz, distira estetiko eskaseko soinuhondo bat baizik ez zuen ematen, *musika-ilustra-tzaile* bat bailitzan.

Tchaikovskyk arlo horretan izandako lehenengo esperientzia 1875eko udaberrian gertatu zen. Ordu hartan, Moskuko Antzerki Imperialaren zuzendari Vladimir Begitchev mandatu bat jaso zuen *Zisneen lakua* ontzoko, alemaniarren kondaira zaharrei buruzko lau ekitaldi-tako baleta. Musikariak lana onartzeko arrazoi nagusia dirua izan zela aitortu zion Rimsky-Korsakovi (kontratuak 800 errublo ordaintzea agintzen zuen), baina egia da ere aztertu gabeko zaitasunei aurre egiteko irrikaz zegoela. Bere lan berriko musikarako, Tchaikovskyk, bestea beste, etxe-giroan erabilizteko urte batzuk lehenago erabilitako gaiak berreskurtatu zituen: familia-ikuskizunetan baliatu zituen Kamenkan (Ukrainian) 1871ko udan egindako

El universo infantil y una de sus plasmaciones literarias más representativas, los cuentos de hadas, estimularon poderosamente la imaginación de Tchaikovsky, sobre todo en una parcela de su producción musical, la coreográfica, en la que el músico ruso pudo desplegar su caudalosa vena melódica sin necesidad de constreñirse a las rígidas estructurales formales de otros géneros. Con tan sólo tres obras, la aportación tchaikovskyana a la historia del ballet será decisiva para contribuir a la renovación de un género en el que hasta entonces primaban las exigencias del coreógrafo sobre las del compositor, casi un mero *ilustrador musical* limitado a suministrar un fondo sonoro de escaso vuelo estético, subordinado por completo a las vistosas evoluciones de los bailarines.

La primera experiencia de Tchaikovsky con este medio surge en la primavera de 1875 cuando recibe el encargo de Vladimir Begitchev, director de los Teatros Imperiales de Moscú, para componer *El lago de los cisnes*, ballet en cuatro actos sobre viejas leyendas alemanas. Aunque el músico habría de confesar a Rimsky-Korsakov que el principal motivo de aceptar el trabajo fue pecuniario (el contrato indicaba el pago de 800 rublos), no es menos cierto que estaba deseoso de enfrentarse a las dificultades de un género inexplorado. Para la música de su nueva obra, Tchaikovsky recupera, entre otros muchos de diversa procedencia,



gau-emanaldietan, arreba Alexandra Davidovaren semeak entretenitzeko.

*Zisneen lakua* ontzoko, 1875eko abuztutik 1876ko apirilera jardun zuen musikariak. 1877ko martxoaren 4an Moskuko Bolshoi estreinatu zutenean, porrota itzela izan zen. Segur aski ikusleek, abeslarien mugimendua nabarmendu baizik egiten ez zuten musika funtzional txepel samarrak entzutera ohituta, ez zuten behar bezala estimatu Tchaikovskyren partitura anbiziotsuaren transzendentzia, indarra eta kemen dramatikoa. Hala ere, lanaren arbuiroan zeresana izan zuten batez ere Julius Reisinger koreografoak, dantza batzuk ezin dantzatu zirela jo eta askotariko baletetatik hartutako beste oso herrikoi batzuekin ordezkatu baitzituen, eta Riaboven orkestrazuzendaritza makalak, pentagramen ezusteko konplexutasunarekin ez baitzuen asmatu. Ez da harritzeko Tchaikovskyren lagun eta kritikari Herman Laroche Bolshoiko ekoizpena antzoki horretan inoiz ikusitako eskasena iritzi izana. *Zisneen lakuan* aparteko arrakasta askoz geroago heldu zen, ordurako Tchaikovsky hilik zela, Marius Petipa koreografo frantses bikainaren laguntzaile Lev Ivanovek, 1894ko martxoaren 1ean, San Petersburgeko Mariinsky musikagile hil berriaren omenezko ospakizun batean bigarren ekitaldia taularatu zuenean. Arrakasta horren ondorioz, Petipa oparoa partitura osoa berreskuratzera oldartu zen 1895eko urtarrilaren 27an, Alejandro III-ren heriotzaren harira. Musikaren koherentziak, fineziak eta adierazkortasunak balet klasikoko eredu borobilena bihurtu zuten *Zisneen lakua*.

Hamahiru urte joan ziren 1888ko maiatzean, beste mandatu ofizial batez, oraingoan San Petersburgoko Mariinsky Antzokiaren eskutik, Tchaikovskyk sinatutako bigarren lan koreo-

algunos temas compuestos años antes por motivos puramente domésticos: amenizar espectáculos familiares para entretenér a los hijos de su hermana Alexandra Davidova durante las veladas transcurridas en Kamenka (Ucrania) en el verano de 1871.

La composición de *El lago de los cisnes* ocupó al músico entre agosto de 1875 y abril de 1876. El estreno en el Bolshoi de Moscú, el 4 de marzo de 1877, se saldó con un rotundo fracaso. Es probable que el público asistente, acostumbrado a escuchar músicas funcionales más o menos anodinas que tan sólo servían para subrayar el movimiento de los cantantes, no supiera valorar la trascendencia, la fuerza y el aliento dramáticos de la ambiciosa partitura tchaikovskyana. Pero al rechazo de la obra contribuyeron, sobre todo, el coreógrafo Julius Reisinger, que considerando imposibles de bailar algunas danzas eliminó muchas de ellas reemplazándolas por otras muy populares pertenecientes a diferentes ballets, y la mediocre dirección orquestal de Riabov, superado por la inesperada complejidad de los pentagramas. No es de extrañar que Herman Laroche, crítico y amigo de Tchaikovsky, calificara la producción del Bolshoi como la más miserable presenciada jamás en ese teatro. La prodigiosa popularidad de *El lago de los cisnes* sólo llegaría mucho después y ya a título póstumo, cuando el 1 de marzo de 1894 Lev Ivanov, asistente del prestigioso coreógrafo francés Marius Petipa, repuso en el Mariinsky de San Petersburgo el segundo acto con ocasión de una ceremonia conmemorativa en homenaje al compositor recientemente fallecido. Su triunfo motivaría al prolífico Petipa para recuperar, con motivo de la muerte de Alejandro III, la partitura completa el 27 de enero de 1895. La coherencia, sutileza y expresividad de su música convertirían para



grafikoa sortu zen arte. *Loti ederra* Ivan Vsevolozskyren libretoa daukan aitzinsolas baka-reko eta hiru ekitaldiko baleta da, Charles Perraulten ipuin ospetsuan inspiratua eta 1888ko urritik 1889ko abuztura ondua. “Balet honen musika nire sorkuntza onenetako bat izango delakoan nago. Argudioa hain da poe-tikoa, musika-inspirazioaren aldekoa, non ha-rekin lilitratuta geratu naizen. Ia beti arrakastaren berme diren atseginez eta berotasunez idatzi dut”, idatzi zion musikariak harrotasunez bere babesle Madame Von Meck. Bere senide ilun zaharragoa baino arinagoa, oparoagoa eta distiratsuagoa, eszenarako partitura be-riak Eguzki Erregearen garaiko Versaillesko jaialdiak ekartzen ditu gogora. Tinbre-aberastasun itzel batez ematen diren eta, gidari-lana eginez, behin eta berriz itzultzen diren motibo-en bidez eta Marius Petipak eskatutako erritmo, konpas, kadentzia eta instrumentazio buruzko exijentzia zorrotzei inoiz ihes egin gabe, Tchaikovskyren mintzairaren heldutasuna eta ekintza dramatikoa bideratzeko trebezia geratzen dira agerian. Marius Petipa lanaren San Petersburgoko 1890eko urtarrilaren 15eko estreinaldi arrakastatsuaren koreogra-fia-arduraduna zen, eta lanak Riccardo Drigo ospetsuaren musika-zuzendaritza izan zuen.

Zisneen lakuan bezala, Tchaikovskyk ez zuen izan paradarik *Loti ederrako kontzertu-areto-* etan haren sekuentzia adierazgarrienen bilduma bat emateko balioko zuen orkestra-suite bat prestatzeko. Lehenengo balet horri dago-kionez, musikagilearen editore Jurgensonk era anonimoan hautatutako pasarteen serie bat argitaratu zuen 1900ean. Bigarrenetik, piano-jole eta orkestra-zuzendari Alexander Silotik bost zenbakiko suite bat argitaratu zuen ordurako hilik zela. Aldiz, Tchaikovskyk izan zuen bere azken maisu-lan sorkuntza koreo-grafikoaren orkestra-suite bat sortzeko para-da.

*Intxaurrauskailua* Petipa eta Vsevolozskyren libretoa daukan bi ekitaldiko baleta da, eta bere argudioa *Itxaurrauskailua eta saguen erregeatik* aterea da, E.T.A. Hoffmann erro-mantiko alemaniarrak bere adiskide J.E. Hitzigen seme-alabentzat 1816an idatzitako ipuina

siempre a *El lago de los cisnes* en el más aca-bado paradigma del ballet clásico.

Habrían de transcurrir trece años hasta que, en mayo de 1888, un nuevo encargo oficial, pro-cedente esta vez del Teatro Mariinsky petersburgués, propiciara el nacimiento de la segun-dra obra coreográfica firmada por Tchaikovsky. *La bella durmiente*, ballet en un prólogo y tres actos con libreto de Ivan Vsevolozsky inspirado en el famoso cuento de Charles Perrault, fue compuesto entre octubre de 1888 y agosto de 1889. “Me parece que la música de este ballet será una de mis mejores creaciones. El argumento es tan poético, tan favorable a la inspiración musical que he quedado cautivo por él. He escrito con ese placer y ese calor que son casi siempre garantía del éxito”, escribirá el orgulloso músico a su protectora Madame Von Meck. Más ligera, exuberante y soleada que su sombría hermana mayor, la nueva partitura escénica, evocadora de los fastos versallescos de los tiempos del Rey Sol, revela la madurez del lenguaje tchaikovskyano y su habilidad para encauzar la acción dramática mediante el regreso periódico de motivos conductores ser-vidos por una formidable riqueza tímbrica y sin apartarse nunca de las minuciosas exigencias en cuanto a ritmos, compases, cadencias e instrumentación requeridas por Marius Petipa, responsable de la coreografía en el triunfal estreno de la obra, con dirección musical del también célebre Riccardo Drigo, que tuvo lugar el 15 de enero de 1890 en San Petersburgo.

De igual modo que con *El lago de los cisnes*, Tchaikovsky no tuvo ocasión de preparar para *La bella durmiente* una suite orquestal que per-mitiera ofrecer en las salas de conciertos una antología de sus secuencias más señaladas. Respecto a aquel primer ballet, Jurgenson, editor del compositor, publicó en 1900 una se-rie de extractos seleccionados anónimamente. Del segundo, el pianista y director de orquesta Alexander Siloti editó una suite en cinco nú-meros con carácter póstumo. Por el contrario, Tchaikovsky sí tuvo oportunidad de concebir una suite orquestal de su última y magistral criatura coreográfica.



(luze gabe San Serapion anaiaik lanean bilduko zuen lau aleetan bigarrena). Alejandro Dumas aitak frantsesera itzuli zuen, eta edizio hori Parisen argitaratu zuten 1845ean. Hartara, Tchaikovskyk Eguberri gauean girotutako haur-kontakizun eder hori ezagutu zuen. Ipuin horretan, anai-arreba bikote batek, beste opari batzuen artean, giza itxurako intxaurrauskailu bat jaso du eta laster hartaz jabetzeko ika-mika hasi dira. Aldiz, Fritzek hautsi egin du; Clara, denak lotan direla eta ordularian gauerdia denean, egongelara itzuli da eta han, Eguberri zuhai-tzaren aldamenean, sanguen eta jostailu-soldaduen arteko guduari begira geratu da.

Balet osoaren sinopsi moduan Tchaikovskyk zehaztutako Suitea 1891ko otsailetik 1892ko martxora izan zen ondua, eta hiru mugimendu ditu. *Minatura obertura* lehenengoak entzulea maitagarrien ipuin unibertsio liluragarrian sartzea du helburu, ebokazio-ahalmen zoragarriaz. Jarraitzen dion musika guztia, *Martxa* izan ezik, baletaren bigarren ekitaldiari dago-kio. Bertan, intxaurrauskailuak bizia hartzendu, eta printze galai bat bihurtu, eta Clarari lagunduko dio Gozokien Erresumako Jauregi-ra. Bigarrena luzeagoa da eta, *Dantza karakteristikoak* izen orokorraren pean, sei sekzio labur biltzen ditu: *Martxaren* bizitasun distiratsuari misterioa eta *Azukrearen maitagariaren dan-tzako* amets-giroa jarraitzen zaio eta, bertan, Tchaikovskyk zelestaren tinbre misteriotsua baliatzen du, artean Errusian ezezaguna zela. *Dantza errusiarraren (Trepakan)* erritmo-zoramendik joriak talka egiten du Georgiako gai herrikoi batean oinarrituz sordinadun hariek on-tzen duten *Dantza arabiarraren* Ekialdeko kutsu finarekin. Fagot astunaren eta piccolo arinaren arteko dialogoak, harien *pizzicatoa* atzean lagun duela, badu halako umore xalo baten isuria *Dantza txinatar txikian*; aldiz, pol-karen erritmoa agertzen da flautak eta adar ingelesak protagonista dituen *Mirlitonen dan-tza* zoragarrian. Tchaikovskyk miniaturista lanetan zeukan talentuaren sei erakusgarri borobil horiek hirugarren mugimenduan jotzen dute gaina: musikariaren doinurako erraztasun agorrezinaren distira erakusten

El argumento de Cascanueces, ballet en dos actos con libreto de Petipa y Vsevolozsky, procede de *El Cascanueces y el Rey de los ratones*, un cuento que el romántico alemán E. T. A. Hoffmann escribió en 1816 para los hijos de su amigo J. E. Hitzig y que incluiría poco después en el segundo de los cuatro volúmenes de *Los hermanos de San Serapión*. Alejandro Dumas padre tradujo el cuento al francés y fue esa edición, publicada en París en 1845, la que permitió a Tchaikovsky conocer este hermoso relato infantil ambientado en la noche de Navidad en la que una pareja de hermanos reciben, entre otros regalos, un cascanueces con forma humana que pronto se disputan. Pero Fritz lo rompe y Clara, cuando todos duermen y el reloj marca la medianoche, regresa al salón donde, junto al árbol navideño, contempla la batalla entre ratones y soldados de juguete.

La Suite establecida por Tchaikovsky a modo de sinopsis del ballet completo, compuesto entre febrero de 1891 y marzo de 1892, comprende tres movimientos. El primero, *Obertura miniatura*, tiene como objeto introducir al oyente, con su delicioso poder de evocación, en el maravilloso reino de los cuentos de hadas. Toda la música que sigue pertenece ya, salvo la *Marcha*, al segundo acto del ballet en el que el cascanueces, que cobra vida y se transforma en un apuesto príncipe, acompaña a Clara al Palacio del Reino de los Dulces. El segundo y más extenso engloba, bajo el título genérico de *Danzas características*, seis breves secciones: a la vivacidad chispeante de la *Marcha* sucede el misterio y la atmósfera de ensoramiento de la *Danza del Hada de azúcar*, en la que Tchaikovsky hace uso del enigmático timbre de la celesta, aún desconocida en Rusia. El exuberante frenesí rítmico de la *Danza rusa (Trepak)* contrasta con el delicado orientalismo de la *Danza árabe* que las cuerdas con sordina elaboran a partir de un tema popular georgiano. El diálogo entre el pesado fagot y el ligero piccolo, sobre el *pizzicato* de las cuerdas, trasluce cierto humorismo ingenuo en la minúscula *Danza china* mientras el ritmo de polka está presente en la deliciosa *Danza de los mirlitones* que protagonizan flautas y corno inglés. Estas seis perfectas muestras



duen Loreen bals kementsuan. *Intxaurrauska-iliuaren Suitea*, 1892ko urtarrilean eta otsailean orkestratua, San Petersburgo estrenatu zuen Tchaikovskyk berak urre hartako martxoaren 19an. Balet osoa hurrengo abenduaren 18an aurkeztu zuten Mariinsky Antzokian, Ivanoven koreografiaz eta Drigoren orkestra-zuzendaritzaz.

*Magifíqueren* bidez Tchaikovskyren musika magiko dantzagarria eta Nicolas Duperoir-en txerto txikieng elkarpena dituela, Thierry Malandain koreografo frantsesa saiatu da “oroitzapenak, musika-inpresioak zein ñabardura sentimentalak eta Tchaikovskyren baleten aztarnak bateratzen; izan ere, bizitza asmatzen den adin horretan izan nuen horiek deskubritzeko atsegina. Dena biltzen zuten: zoriona, tristura, malenkonía. Bazeuden ere printzeak, maitagarriak, jauregi sorginduak eta baso izugarriak, ekintza izugarriak burutzen zituzten izaki gaitzoz jendeztatuak”. *Magifique* lanak “iraganaren eta orainaldiaren lotura erakusten du, errealityeta eta irudimena lotzen ditu. [...] Izenburua bilatzen ari nintzela, gogoratu nuen umetan nire harridura-uneei *magifique* [magnífique desitxuratu] deitzen niela. *Magnifique* ‘n’rik gabe, ‘ene’ kentzeak bereizi egiten baitu, eta hitz asmatu hori, mintzairaren zirkuitulabur hori, ezin hobea da sorkuntza honen helburuetarako: magia sortzea edo, are, bizitzako gai gordina forma adierazgarri eta poetikoetan birziklatzea. Hala ere, *Tchaikovsky Suites* ere deitzen da musikariaren omenez”.

Thierry Malandain beraren hitzetan, “Ikuskizun orok esperientziez hornitzear gain, asmatu ere egiten du, honako ikuskizun hau kamikaze samarra da, berezkotasunari ematen dio lehentasuna. Iraganaren eta orainaren arteko lotura gisa ere aurkezten da, erreala de-naren eta irudimenezkoaren arteko lotura bezala. Inungo herrialde bat islatzen duen dekoratu batean, heroiek eta beren haurtzaroak hainbat frogiei aurre egin eta itzlerraldoiekin zelatutatuko lautadetan barrena abiatzen direneko ipuina izan daiteke, Ez talismanik, ezta objetu magikorik ere, dantza edo gurari sakonenak islatzeko gai diren ispiatuak soilik. Moralik ere ez. Bainan, zalantzak gabe, sor ezazue

del talento de Tchaikovsky como miniaturista encuentran perfecta coronación en el tercer movimiento, ese incombustible *Vals de las flores* en el que resplandece la inmarchitable facilidad melódica del músico. La Suite de Cascanueces, orquestada entre enero y febrero de 1892, fue estrenada en San Petersburgo por el propio Tchaikovsky el 19 de marzo de aquel año. El ballet completo se presentaría el 18 de diciembre siguiente, en el Teatro Mariinsky, con coreografía de Ivanov y dirección orquestal de Drigo.

Con *Magifique*, con la mágica música danzable de Tchaikovsky y la contribución de unos pequeños insertos adicionales de Nicolas Duperoir, el coreógrafo francés Thierry Malandain ha creado un espectáculo en el que trata “de unir a los recuerdos, a las impresiones musicales, a los matices sentimentales, reminiscencias de los ballets de Tchaikovsky. Porque fue en la edad en que la vida se inventa cuando tuve el placer de descubrirlas. Todo estaba allí: la felicidad, la tristeza, la melancolía. También había princesas, príncipes, hadas, palacios encantados y bosques espantosos en cuyo interior seres maléficos cometían actos aún más tenebrosos”. *Magifique* “se presenta como vínculo entre pasado y presente, como nexo de unión entre lo real y lo imaginario. [...] Al buscar un título recordé que de niño calificaba mis momentos de asombro como *magíficos*. Magnífico sin ‘n’ porque la ‘en-ajenación’ divide y esa palabra inventada, ese cortocircuito del lenguaje, es perfecto para los propósitos de esta creación: provocar magia o, de hecho, reciclar la materia cruda de la vida en formas expresivas y poéticas. Pero se titula también *Tchaikovsky Suites* para tener al músico en mente”.

En palabras del propio Thierry Malandain, “Puesto que todo espectáculo se nutre de experiencias al mismo tiempo que inventa, éste es ligeramente “kamikaze”, da prioridad a la espontaneidad de la creación. También se presenta como vínculo entre pasado y presente, como nexo de unión entre lo real y lo imaginario. En un decorado de país de ninguna parte, podría tratarse de un cuento en el que los héroes y su infancia hacen frente



zeuona, ikuskizun honetan norberak bere historia irauli baitezake, ikusten duen hori, imaginatzen duen hori defendatzea helburu harturik".

a una serie de pruebas, recorren comarcas vigiladas por sombras magnificadas. Nada de talismanes, de objetos mágicos, salvo espejos capaces de revelar la danza o los deseos más profundos. Nada de moral tampoco. Pero no duden en crear la suya propia, porque también se trata de un espectáculo en el que cada cual puede volcar su propia historia, con el objeto de defender aquello que ve, aquello que imagina.

### **Magifique. Tchaikovsky Suites**

2009ko abenduaren 12an Donostiako Viktoria Eugenia Antzokian sortua, Miarrizte-Donostia Zentro Koreografiko Mugakidearen proiektuaren baitan, Interreg IV A europar diruen laguntzarekin.

Creado el 12 de diciembre de 2009 en el Teatro Victoria Eugenia de San Sebastián en el marco del proyecto Centro Coreográfico Transfronterizo Biarritz- San Sebastián apoyado por los fondos europeos Interreg IV A.

Koprodukzioa/Coproducción: Ópera- Teatro de Saint-Etienne, Teatro Victoria Eugenia de Donostia-San Sebastián, Gran Teatro de Reims, Centro Coreográfico Nacional de Aquitania en Pirineos Atlánticos Malandain Ballet Biarritz. Lankideak/Colaboradores: Trés tôt Théâtre de Quimper, Música y Danza en el Loira Atlántico.

Musika/música Piotr Ilitch Tchaikovsky

Koreografia/Coreografía: Thierry Malandain

Dekoratua eta jantziak/decorado y vestuario: Jorge Gallardo

Ekoizpen eta argiteria-diseinuaren zuzendaria/director de producción y diseño de iluminación:

Jean-Claude Asquié

Konposizio gehigarria/composición adicional: Nicolas Dupéroir

Jantzigintza/confección de vestuario: Véronique Murat

Mozorrogintza/realización máscaras: Annie Onchalo

Dekoratuaren eraikitzea/realización del decorado: Alain Cazaux

Dantzariak/Bailarines: Ione Miren Aguirre, Aurélien Alberge, Raphaël Canet, Olivier Coëffard, Elyce Daniele, Frederik Deberdt, Cédric Godefroid, Aureline Guillot, Jacob Hernandez Martin, Miyuki Kanei, Mathilde Labé, Fabio Lopes, Nuria López Cortés, Silvia Magalhaes, Arnaud Mahouy, Joséphine Pra, Magali Praud, Nathalie Verspecht, Daniel Vizcayo. Maîtres de ballet : Richard Coudray, Françoise Dubuc Répétiteur Giuseppe Chiavaro.

Ekoizpen zuzendaria/director de producción : Jean-Claude Asquié

Erregidore orokorra/regidor general: Oswald Roose

Argiteria erregidorea/Regidor de iluminación: Frédéric Eujol, Christian Grossard

Eszena erregidorea/regidora de escena : Chloé Breneur

Soinu erregidorea/Regidor de sonido: Jacques Vicassieu, Nicolas Rochais

Eszena teknikaria/técnico de escena : Gilles Urrutia

Jostuna/Sastras: Karine Prins



## Gure iradokizun diskografikoa Nuestra sugerencia discográfica

P.I. Tchaikovsky:

### El lago de los cisnes

Orquesta Sinfónica de Londres.

Zuzendaria / Director:  
André Previn.  
EMI, 1976.

### La bella durmiente

Orquesta del Concertgebouw.

Zuzendaria / Director:  
Antal Dorati.  
Philips, 1981.

### Cascanueces

Orquesta Sinfónica de Londres.

Zuzendaria / Director:  
André Previn.  
EMI, 1972.

## Eduardo Portal

zuzendaria  
director



Burgosko zuzendari gazteak 2010/2011 denboraldian egingo du estreinaldia Hallé Orkestra, Manchester Camerata, ORCAM eta Orquesta del Vallés-kin. Etorkizuneko konpromisoen artean, aipatzekoak dira ondorengoekin egingo dituen debutak: Londresko Orkestra Filarmonikoa, Lausankako Ganbera Orkestra, Sao Pauloko Estatuko Orkestra Sinfonikoa eta Madrilgo Orkestra Sinfonikoa. Azken urteetan, Eduardo Portal-ek ondorengoekin lan egin du: Berlingo Orkestra Sinfonikoa, Luxemburgoko Orkestra Filarmonikoa, Gaztela eta Leongo Orkestra Sinfonikoa, Espaniako Gazte Orkestra Nazionala eta Orchestra of the Age of Enlightenment. Bere opera-esperientzian aipa-tzekoak dira Offenbachen *La Belle Hélène*, Janáceken Kátia Kabanová, Bernsteinen *Candide*, Haendelen *Imeneo* eta Rossiniren *El Barbero de Sevilla*. Berlingo Universität der Künsten eta Londresko Royal Academy of Musicen graduatu zenetik, Londresko Orkestra Filarmonikoa, Orchestra of the Age of Enlightenment eta Espaniako Gazte Orkestra Nazionaleko zuzendari laguntzaile lanetan aritu da.

El joven director burgalés hará durante la temporada 2010/2011 su debut con la Orquesta Hallé, Manchester Camerata, ORCAM y Orquesta del Vallés. Compromisos futuros incluyen debuts con la Filarmónica de Londres, Orquesta de Cámara de Lausanne, Sinfónica del Estado de São Paulo y Sinfónica de Madrid. En los últimos años Eduardo Portal ha trabajado con la Sinfónica de Berlín, Filarmónica de Luxemburgo, Sinfónica de Castilla y León, Joven Orquesta Nacional de España y Orchestra of the Age of Enlightenment. Su experiencia operística incluye funciones de *La Belle Hélène* de Offenbach, Kátia Kabanová de Janácek, *Candide* de Bernstein, *Imeneo* de Haendel y *El Barbero de Sevilla* de Rossini. Desde que se graduó en la Universität der Künste de Berlín y la Royal Academy of Music de Londres, ha sido director asistente de la Filarmónica de Londres, Orchestra of the Age of Enlightenment y Joven Orquesta Nacional de España.





Gure Orkestraren jarduerari buruzko xehetasun gehiago nahi izanez gero gurekin harramanetan jar zaitezke / Si desea conocer más detalles acerca de la nueva programación de nuestra Orquesta contacte con nosotros.



943 01 32 32 | [www.euskadikoorkestra.es](http://www.euskadikoorkestra.es)

Miramon Pasealekua, 124 • 20014 Donostia-San Sebastián

## Hurrengo abonu kontzertua Próximo concierto de abono

Martxoak  
**8-9**  
Marzo

**Andrés Orozco-Estrada**  
zuzendaria / director  
**Christiane Karg**  
sopranoa / soprano

**Enrique Jordá (1911-2011)**  
J. Guridi  
Diez melodías vascas  
**G. Mahler**  
Sinfonía nº4

## Miramongo Matinéek Matinées de Miramón

Otsailak  
**19**  
Febrero

Grupo de cámara IZAI ganbera taldea

## Musika Familiar Conciertos en Familia

Otsailak  
**26**  
Febrero

Soinutik... bihotzera/Del Sonido... al corazón

EOS-en egoitza/Sede OSE

Sarreren salmenta

Venta de entradas

 **kutxa**

 **SERVIKUTXA**

① 943 00 12 00

 [www.kutxa.net](http://www.kutxa.net)

Taquilla KURSAAL leihatila

Días de actuación de la Fundación Kursaal

MATINÉES: Taquilla Sede

Día del concierto a partir de las 10:30h.

| [www.euskadikoorkestra.es](http://www.euskadikoorkestra.es)





## Urte osoan bizi dugu musika.



Musika, artea, literatura...  
Gipuzkoan kultura bizi dugu barren-barrenetik.  
Eta **kutxak** babesak eskaintzen die urtean zehar antolatzen  
diren kultur ekitaldi eta ekimen ugariri.  
Era guztiak kultur adierazpideak bultzatzeara gure  
**gizarte-konpromisoaren** parte ere badelako.

*zugandik zugana*

 **kutxa**  
gizarte